

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Hasierako onespena ematea "Opakua-Urbano" AIU-43 eremuko Hiri Antolamendurako Plan Bereziari

Alkatearen 2020ko uztailearen 6ko dekretu baten bitartez, hasierako onespena eman zitzaion Aguraingo udalerriko "Opakua-Urbano" AIU-43 eremuko Hiri Antolamendurako Plan Bereziari. Plan hori Aguraingo Udalak sustatu zuen, eta Ignacio Pedreira Ruiz de Arkaute arkitektoak eta Andrés Iturralde Martínez de Lizarduy mendi ingeniariak idatzi zuten.

Plan berezi hori eta horretarako izapidetutako espedientea jendaurrean egongo dira hogeitun egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn eta lurraldean gehien saltzen den egunkariren baten edo batzuetan azkenengoz argitaratzen denetik aurrera, eragindakoek aztertu eta egoki deritzeten alegazioak aurkeztu ahal izan ditzaten, halaxe xedatzen baitu Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen 95.2 artikulua.

Agurain, 2020ko uztailearen 6a

Alkatea

ERNESTO SAINZ LANCHARES